



Garazi Lekunberri
Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

John Andueza	2
Sarrera	2
<i>Prime-time</i>	
• Kokapena	3
• Gaia	4
• Argumentua	4
• Istorioa (gertaera nagusiak)	4
• Egituraketa	7
• Pertsonaiak	7
• Baliabideak	10
• Iritzia	12
Bibliografia - Webgrafia	13

John Andueza

John Andueza Altuna (Burns, Oregon, Estatu Batuak, 1966). Telebista eta zinemaren saltsa-maltsan nahastuta ibili da luzaroan. Urte beteko haurra zela etorri zen Arrasatera bizitzera, aita - Oregonen artzain gisa lan egiten zuen gizona-hil zitzaionean. Orain Elgetan bizi da.



Kazetaritzan lizentziaduna, EHUn. 'Arrasate Press' eta 'Berrigara' izan zituen lehenengo lantokiak. Bi aldiz irabazi du “Rikardo Arregi” kazetaritza saria.

1993tik ETBko hamaika saiotan aritu da zuzendari, aurkezle, gidoilari, edota aktore gisan: *Hor dago koska*, *Elkanotarrak*, *Goenkale*, *Hasiberriak*, *Trikitraka Trikitron...*

Zinemagintzan, lau laburmetraia zuzendu ditu: *Laugarren Galeriatik*, *Bernar*, *Aita Guria*, eta *Bilintx*. Eta bi luzemetrai ere zuzendu ditu: *Fatimetu*, eta *Simplemente*.

Idazle gisan, “Donostia Hiria Ipuin Lehiaketa” eta Bilboko “Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketa” irabazi ditu. 2012an bere lehenengo nobela publikatu zuen Elkar argitaletxearekin: *Larunbatean Bukowskin*. Bereziki gazteei zuzendutako obra da, Donostiako institutu batean gertatutako peripezien kronika martxosoa. Duela gutxi nobelaren lehen edizioa agortu ondoren, bigarren edizioa kaleratu da.

Sarrera

Prime-time John Anduezak idatzitako eleberria da, 2014an aurkeztu zen, Donostiako Elkar aretoan. Irakurle helduei begira idatzi duen lehen obra da, eta telebistaren munduan girotuta dago, Bilbon. Telebistaren glamourra eta komunikabide honek gizartean duen eragina aprobetxatuz, eskandaluz betetako thrillerra osatu du.

Nobela bat da. Nobelako protagonistak Bala eta Klemente dira, Ertzaintzatik bota dituzten bi langile, biak oso desberdinak. Detektibe pribatu bihurtu dira, eta halako batean euren bizitza goitik behera aldatuko duen kasu bat agertuko zaie: telebista munduko jende ahaltsua

zirkunstantzia arraroetan hilda agertzen ari da. Gertakari hauek trama korapilatsu baten hasiera izango dira, eta eleberriko azken orrialderaino idazlea erne mantenduko dute.

Horrela, XXI. mendeko denboraren menpeko bizimodua islatzen du istorioak, baina batzuetan denboran salto egin eta aspaldiko zenbait kontu ere eskaintzen dizkigu.

PRIME-TIME

Kokapena

Lehen azaldu bezala, istorio hau, gaur egunean dago kokatuta. Hain zuzen, 2013an kokatu du Anduezak eleberri beltz honetako istorioa. Kontakizunak zer iraupen duen zehatz ez badakigu ere, pare bat hilabeteko kontua dela ondoriozta dezakegu.

Bilbon dago kokatua, detektibe agentzia batean. Hala ere, Euskal Herriko beste hainbat txoko ere aipatzen dira. Gertaera nagusienetariko batzuk Algorta eta Gernikan gertatzen dira.

Suspensea eta tentsioa osagai dituen literatura dugu honakoa. Thrillerra bada ere, besteak beste, adiskideen arteko harremanak, familia, sexua, haur lapurtuen auzia, maitasuna eta bakardadea dira obra honetan tratatzen diren gaietako batzuk.

Gainera, esan daiteke “guztiz errealak” direla eleberri honetako pertsonaiak, hau da, ohiko arazoak dituzten pertsona arruntak direla, egunero kalean gurutzatu ditzakegunak. Azken finean, gutako edonori bizitzan gerta dakizkigukeen arazoak dituzte eta horiei buelta ematen ahaleginduko dira. Askotan uste dugu horrelako istorioak Estatu Batuetan bakarrik gertatzen direla. Gezurra badirudi ere, Bilbon badaude detektibe agentziak.

Bestetik, narrazioa burutzeko, lehenaldiko narratzaile aktorea erabiltzen da, protagonistetako bat da narratzailea. Beraz, liburuko pertsonaia nagusietako bat da ekintzen berri ematen diguna, betiere, lehenaldiko denbora erabiliz, bizi dituzten arazoak kontatzen ari balitz bezala.

Gaia

Bizitza arruntaren mugak, utopiak edota patua; eta horien guztien gainetik heriotzaren eta presagioen gaia.

Argumentua

Bala eta Klemente, hanka-sartze handi baten ondoren, Ertzaintzatik kanporatuak izango dira eta, halabeharrez, detektibe pribatu bihurtuko dira. Hasiera batean, senar-emazteen arteko liskarrak begiratu eta asko jota, diru kontuak ikertzen arituko dira. Baina, halako batean euren bizitza goitik behera aldatuko duen kasu bat agertuko zaie: telebistako jauntxo bat hilik agertuko da Algortan, Arrigunagako labarretan eta hori ikertzeko aktore ohi batek kontratatuko ditu. Baliteke suizidioa izatea edo agian hilketa izatea. Ikertzen hasi eta beste hildako batzuk agertzen dira, telebistarekin lotuta.

Balak eta Klementek heriotza horiek argitzea lortuko dute, gorabehera askoren ondoren, baita hiltzailea nor den jakitea ere. Baina amaieran beste ustekabe bat hartzen dute.

Istorioa (gertaera nagusiak)

1. Irrintzi Operazioan hanka-sartze galanta egin ondoren, Bala eta Klemente ostikoka bota dituzte Ertzaintzatik. Orain, halabeharrez, detektibe pribatu bihurtu dira.
2. Halako batean, Lukas Montxonen deia jasoko dute, gurpil-aulkian dagoen aktore ohi batena. Honek Alex Aginagaren heriotza aztertzeko eskatuko die. Alex Aginaga, Getxon, Algortan, Arrigunagako haitzetan agertu zen hilda. Poliziak bere buruaz beste egin zuela dioen arren, Lukasek beste bertsio bat dauka. Duela hilabete inguru, Artxandan, Alberto Sotillos urkatuta azaldu zela ere kontatu zien. Beraz, poliziek ziotenez, Alex Aginagarena denbora gutxian komunikabide beraren inguruan gertatutako bigarren suizidioa zen, eta Lukasentzat hori ez zen kasualitate hutsa.
3. Bala eta Klemente, Lukasek eskatu bezala, kasua ikertzen hasiko dira. Bala Arrigunagako haitzetara joango da pista gehiagoren bila eta han

arropa ilunez jantzitako neska ilehori bat zelatan duela ohartuko da. Bien bitartean, Klemente Artxandara joango da.

4. Aste osoa ikertzen eman ostean, biak ondorio berdinerira iritsiko dira, bai Arberto Sotillosek bai Alex Aginagak bere buruaz beste egin zuten. Hala, Montxonen etxera joko dute atera dituzten ondorioak berari plazaratzera. Gizona ez da pozik geratu detektibeek egindako lanarekin, hala ere, detektibeek bukatutzat emango dute beraien lana.
5. Hurrengo egunetan errutina monotonoan murgilduko dira berriro bi detektibeak, irratian albiste bat entzungo duten arte. Esatariak, Ernesto Gisasola, telebistako zuzendari nagusia, Gernikan hilda aurkitu zutela esateak ustekabeen harrapatu ditu bi detektibeak.
6. Gernikako polizia-etxean lan egiten duen lagun bati deituko diote Ernesto Gisasolaren hilketaren inguruko informazio guztia jaso ahal izateko. Momentuz arrasto bakarria zutela esango die, goizeko ordu biak aldera Gisasolaren kotxea garajera sartzen grabatu zutela segurtasun-kamerek eta goizaldeko hirurak aldera, emakume bat grabatu zuela hortik alde egiten, ilehoria eta arropa ilunekin jantzia.
7. Telebistarentzat kolpe latza izango da, hiru hilketa denbora tarte laburrean. Gertakari tamalgarri horrek dena aldatzen du. Balak eta Klementek, albistearen berri jakin bezain laster, Lukas Montxoni deituko diote eta kasua berriro ikertzeko prest daudela esango diote.
8. Lukasek ez du detektibeek eskaintza onartuko eta debozio hutsagatik iker dezatela esango die. Eta hala, Montxonen ezezkoak zapuztuta utziko baditu ere, euren kabuz ikertzeari ekingo diote.
9. Emakume horren eta Balak Arrigunagan ikusitakoaren artean loturaren bat dagoela pentsatuko dute. Horrela, Alex Aginagarena zen Badugu Produkzioak enpresa ikertzen hasiko dira. Aginagaren gertuko jendea elkarrizketatuko dute eta enpresan lanean ari diren emakumezkoen buruzko informazioa eskuratzen saiatuko dira.
10. Haietariko emakume bat, Laura, susmagarritzat hartuko dute, ilehoria den emakume bakarria. Balak hitzordu bat edukiko du berarekin baina hiltzailea bera izango daitekeela ulertaraziko dio eta emakumeak pikutara bidaliko du.

11. Ikerketarekin aurrera jarraituko dute. Egun horietako batean Klementek bere sekretu ezkutuen kontatuko dio bere lankide Balari. Aspaldi, Donostiako polizi-etxean destinatua zegoela, haur lapurtua zela jakin zuela, alegia.
12. Ikerketari dagokionez, norbaitek Gisasola drogatuta eta bere kotxean etxera eraman zutela ondorioztatuko dute bi detektibeek. Gisasola zenaren azterketa toxikologikoaren emaitzen arabera Gisasolak GHBa goizaldeko ordu bata aldera hartu zuela jakin ondoren.
13. Hori jakin ostean, Gisolaren txalet atariko segurtasun-kamerak grabatutako irudiak ganoraz erreparatzeko ordua dela jakingo dute Balak eta Klementek.
14. Mikel Lezeta, Balaren txikitako laguna eta orain argazkilari famatua denari eskatuko diote laguntza. Irudien pixelak tratatu ostean ohartuko dira, batetik, Gisolaren garajearen sartu zen kotxea gizon bizardun batek gidatzen zuela eta bestetik, Gernikako txaletetik irten eta oinez urrundutako ustezko emakumea, gizon bat zela berez.
15. Hala, Badugu Produkzioak enpresan lanean ari diren gizonen informazioaren bila hasiko dira. Beharrezko informazioa lortu ondoren, Klementek teoria bat proposatuko dio Balari: Montxon izan daitekeela hiru hilketaren tragikoen erantzulea.
16. Hasieran Balak gutxietsi egingo du bere lankideak esandako, baina Montxonekin bere etxean bildu zireneko pasarte bat gogoratuko du eta horrek begiak irekiko dizkio. Montxon gurgil-aulkian bazegoen ere, ibiltzeko gai zen, gezurra esan zien bi detektibeek. Telebista munduan egondakoa zenez, ez zuen inolako zailtasunik emakumez mozorrotzeko eta ezta elbarria zela antzezteko ere.
17. Teoria horren aurrean poliziarekin harremanetan jarriko dira. Montxon atxilotzeko agindua emango dute eta bi detektibeek bere etxea miatzeko baimena lortuko dute.
18. Montxonon etxera joango dira, baina beranduegi izango da. Montxon aspaldi alde gina zen, baina ez dakite nora.
19. Montxon aurkitzeko inolako esperantzarik ez dutenez, kasuaz ahaztea eta dena bere horretan uztea erabakiko dute.

20. Hilabeteren buruan, ustekabeen, gutun-azal anonimo bat jasoko dute Balak eta Klementek. Gutun-azalaren barruan DVD bat dagoela ohartuko dira eta ahalik eta azkarren hasiko dira bideoa ikusten.
21. Bideoan Lukas Montxon agertuko da, gorpil-aulkian eserita. Telebistako hiru langileen heriotzaren erantzule dela aitortzen du bertan.
22. Dirudienez, izandako istripuaren ondoren lur-jota geratu zen eta azken boladan, denbora luzean lan gogorra egin ostean, bere kabuz ibiltzeko gai zela ikusirik, komunikabideen mundura itzultzeko asmotan zegoen. Epilogoak izeneko saio bat jarri nahi zuen martxan eta horretarako beharrezkoa zitzaion norbaiten laguntza. Alberto Sotillos, Alex Aginaga eta Ernesto Gisasolari laguntza eskatu zien eta hirurek eman zioten ezezkoa. Ezezko horren amorruak eraman omen zuen hiru gizonen hilketaren erantzule izatera.
23. Bideoaren amaieran, Montxonek bere buruaz beste egiten du. Hala ere, Klementek, bideoa behin eta berriz ikusi ostean, dena montaje hutsa dela pentsatuko du; oraingoz Montxon munduko edozein bazterretan bizirik dagoela.

Egituraketa

Eleberriak hurrenkera kronologikoari eusten dionez gero, narrazioa lineala da. Hala ere, noizbehinka iraganera jotzen du; beraz, esan dezakegu, ipuinaren haria lineala den arren, iraganera saltoak edo *flashback*-ak aurki ditzakegula tarteka. Gainera, bukaera irekia du, hots, ekintza puntu batera helduz amaitzen da nobela, baina gertaerek edo pertsonaiaren bizitzek segi dezakete beste batean. Bestalde, aipatu beharra dago izenburua duten sei zati handitan banaturik dagoela istorioa, eta orokorrean kapituluka dagoela egituratua, kapitulu bakoitzak ere bere izenburu propioa duelarik.

Pertsonaiak

Prime-time obran, pertsonaiak garrantzi handikoak dira istorioaren garapenerako. Hona hemen esanguratsuenak edo aipamen berezia merezi duten pertsonaiak:

Bala. Pertsonaia nagusietako bat dugu eta baita narratzailea ere. 42 urteko perdigoi galdua. Ez du inoiz zorte askorik izan bizitzaren erruletan. Halere, optimista petoa izaten jarraitzen du. Hiru aldiz ezkondua eta hiru aldiz dibortziatua. Emakumeen atzetik dabil uneoro, lorez lore. Ertzaintzatik kaleratu zuten bere lagun Klementerekin batera Irrintzi operazioan hankasartze galanta egin eta gero. Orain detektibe pribatua da eta bere bizimodua goitik behera aldatuko duen kasu bat ikertzea izango da bere helburu nagusia.

Klemente. Protagonistetako bat dugu hau ere. Bala baino praktikoagoa da, zuhurragoa. Beti bigarren planoan dagoen gizontxo. Ez da sekula santan ezkondu. Pesimista konbentzitua da eta oso tematia. Detaile ximpleak gustatzen zaizkio, arreta berezia jartzen du txikikeria hutsaletan. Amaren etxea ez zen inoiz Klementerentzat aterpe goxoa izan. Gurasoak hil zirenean, Klementek bere familiaren iraganari buruz ikertzea erabaki zuen eta ume lapurtua zela ohartu zen. Balarekin batera detektibe lanetan dihardu Ertzaintzatik bota zutenetik, eta esku artean duten kasu korapilatsua argitzea du jomuga.

Lukas Montxon. Umorezko programa batean aurkezle lanak egiten zituen eta arrakasta dezente eduki zuen. Hala ere, telebistan azaltzeari utzi zion kotxe istripu baten erruz. Geroztik elbarri dago, gurpil-aulki astunari lotuta bizitzera kondenatuta. Klemente eta Balaren bizimoduak goitik behera aldatuko dituen telefono deiaren egilea da. Bera izango da detektibeei dei egingo diena Algortan, Arrigunagako labarretan gorpu bat aurkitu dutela esateko. Lukasek bultzatuta hasiko dira kasua ikertzen. Protagonista ez den arren, paper garrantzitsua betetzen du nobela honetan eta inork esperoko ez duen ezustekoa emango du.

Alex Aginaga. Apirilean Arrigunagako haitzetan hilda agertu zen gizona. Ertzaintzak bere buruaz beste egin zuela deliberatu zuen. Ekonomian lizentziatua zen Deustuko Unibertsitatean. Edurne Bastarrikarekin ezkondua eta bi semeren aita zen. Badugu Produkzioak sortu zuen beste bi bazkiderekin batera eta beranduago bi bazkideen partizipazio guztiak erosi zituen, negozioaren jabetza osoa eskuratuz. Goitik behera kontrolatuta zeukan bere enpresa, baina gestio patetikoa egin zuen azken urteotan eta ondorioz, gaur egun Badugu Produkzioak zorrez itota dago. Bere heriotzak buruhauste bat baino gehiago ekarriko die bi detektibeei.

Alberto Sotillos. Otsailean Artxandako parke abandonatuan bere burua urkatu zuen. Dendarien semea zen, ongi hezitako gaztea eta ikasle fina. Nafarroako Unibertsitatean kazetari lizentziaduna eta EAJ-n militatu

zuen gaztetatik. Ikasketak bukatzean sei hilabetez aritu zen telebista sortu berrian praktikak egiten eta gero, etengabe goraka zeraman bidean gora abiatu zen. Telebistako informatiboetako buru izendatu zuten. Geroago, Estatu Batuetara joan zen bere burua hobeto trebatzeko eta handik itzultzean, telebistako programazio buru izendatu zuten. Sotillos asteburuetako mendigoizalea zen.

Ernesto Gisasola. Telebistako zuzendari nagusia dugu honakoa eta Gernika kanpoaldeko urbanizazioan hilda aurkituko dute. Itota azalduko da bere etxeko igerilekuan. Albiste honek zirrara eta ezinegona sortuko du euskal gizartean. Berrogeita hamazazpi urte zituen eta lau zeramatzan telebistako zuzendari nagusi karguan. Gizon konplikatua zen eta oso zuhurra. Izugarrizko abilitadea zeukan boterearen goiko esferetan mugitu eta beti onik ateratzeko. Artista galanta, bere ipurdia salbatzen, bederen.

Baina horiez gain, badira pertsonaia gehiago ere; hona hemen gainerakoak:

- Isidro Garmendia: bere emazteak adarrak jartzen dizkion susmoa du eta detektibeei deituko die.
- Luzia: Balarekin txortan egiten duen neska.
- David Berkowitz eta Ted Bundy: serial killer famatu batzuk.
- Basilio: Balaren etxe azpiko tabernaren jabea.
- Julio Etxarri: Alberto Sotillosen kasua aztertu zuen forentsea, Klementeren laguna.
- Txutxo Alonso: Getxoko polizia-etxean lanean dabilen ertzaina, Balaren garai bateko konpañeroa.
- Josu Aginaga: Aseguru-etxeetako gerentea, Alex Aginagaren anaia.
- Emili Arrue: Abokatua da eta bere bezeroak eskatuta deituko die bi detektibeei, kasu sinple bat argitzen laguntzeko.
- Juan Antonio Iztueta: Kutxabankeko kontseilari ahalguztiduna.
- Ainhoa Lasagabaster: Juan Antonioren emaztea, susmo txarrak hartu zizkion senarrari garai batetik honantz, eta horregatik eskatu dio bere abokatuari detektibeei deitzeko.
- Virginia Leite: Juan Antonioren maitalea, mulata brasildar ikusgarria.
- Kepa Sarobe: Klemente eta Balaren garai bateko lankidea.
- Amelia Salazar: 89 urteko pintorea.

- Irene: Balaren bigarren emaztea.
- Tamara: Balaren bizilaguna, desesperazioaren erruz balak bere ohera gonbidatuko du.
- Edurne Bastarrika: Alex Aginaga zenaren emaztea.
- Rosario Landa, Blanca Garcia, Etibaliz Mendizabal, Naroa Lopez eta Laura Arana: Badugu Produkzioak ekoiztetxeko emakumezko langileak.
- Beatriz Gorrotxategi: Klementeren ama biologikoa.
- Mikel Lezeta: Balaren txikitako laguna, argazkilari famatua bihurtu da, ikertzen dauden kasua argitzeko ezinbesteko laguntza eskainiko die.
- Souleiman, Mikel Perez eta Txus Lizardi: Badugu Produkzioak enpresan lan egiten duten gizonetako batzuk.
- Alfonso Urrutia: 92 urteko militarra.
- Gerardo Sagasta, Karmele Ruiz, Eva Abarrategi eta Winston Hernandez: detektibeei bulegora laguntza eske joan zaizkien gainerakoak.
- Jon Andoni Altuna: telebistako zuzendari nagusi berria, Ernesto Gisasola hil eta gero.

Baliabideak

Eleberri honetan baliabide ugari erabili ditu idazleak, pertsonaien arazoak eta kezkek irakurleari helarazi eta hau hausnarketara bultzatzea bilatu du. Adierazmolde aldetik, narrazioa da nagusi, baina tokien deskribapenek eta elkarrizketek ere garrantzia eta indar handia dute obra honetan. Barne-bakarrizketaz jositako liburua dugu, batez ere sentimenduak irakurleari erraztasun handiagoz igorri ahal izateko. Gainera, tokien deskribapenak ez ezik, pertsonaien deskribapenak ere ugari dira.

Hizkuntza eta idazkera aldetik, konplikaziorik gabeko idazkera du. Euskara gozo eta sanoa erabiltzen du, batere artifiziorik gabea. Telebistaren munduan girotu du Anduezak nobela eta, hain zuzen, eskarmentua duen gidoigintzako eta kazetaritzako idazkera garbi eta azkarra erabili ditu plano ezberdinetan eraikitako istorioa kontatzeko. Estilo aldetik, gainera, landua dela esan daiteke. Istorioa saltoka-saltoka, plano desberdinetan eraiki du eta irakurleak ez du jarraitzeko arazorik izango, ulertzeko obra erraza da.

Bestetik, narratzaile mota aipatzea behar. Izan ere, istorio honetan narratzaile bakarra dago eta narratzaile protagonista da. Hau da, narratzailea pertsonaietako bat da eta bera eta bere lankideari gertatzen zaiena ezagutu eta kontatuko digu. Horregatik, ekintzetan esku hartzen duenaren ikuspegitik ezagutuko ditugu gertaerak. Gramatikalki beraz, lehen pertsonan hitz egiten du, bai iraganeko istorioa kontatzen duen tarteetan, bai ildo nagusietan.

Baina, zalantzarik gabe, eta baliabideei dagokienez, obra honetan, aipamen berezia zor zaie tropo edo figurei. Maila semantikoko baliabideak; beste era batera esanda, hitzen esanahiarekin lotura duten baliabideak nonahi aurki ditzakegu, hala nola, konparazioak eta metaforak. Bestalde, esamolde ugari ere biltzen ditu. Honela bada, honakoak aurki ditzakegu askoren artean:

KONPARAZIOAK

Bazkalosteko telefilmerik kaskarreanean ere ez zuketan halako ergelkeriarik asmatuko. (39)

Bigantxa baten antzera altxatu nintzen ohetik... (57)

...ez nintzen gimnasioetako idisko anabolizatuak bezain gihartsua... (58)

Jela pusketa ematen du, hotz eta izotz... (168)

METAFORAK

...abesti absurdoa buruan iltzatuta geratu zitzaidan berriro... (57)

...ze motxila astuna eraman duen nire adiskideak bizkarrean azken urte hauetan guztietan! (176)

ESAMOLDEAK

The party is over. (54)

C' est la vie. Bizitza horrela da. (67)

Baina ze arraio, turistek ez dituzte... (97)

Portzierto, inbestigazio hori... (115)

Argi dago, kontxo... (177)

Noizbehinka beste figura mota batzuk ere agertzen dira. *Baga, Biga, Higa* kantaren zati bat txertatzen du nobelako pasarte batean. Mikel Laboa, XX. mendeko euskal abeslari esperimentatzaile, ezagun eta eraginkorre-netarikoa izan zenaren kanta bat, alegia.

*Ez nekien zergatik, baina lekuz kanpo zegoela iruditu zitzaidan.
Emakumea haize errotaren aldamenetik desagertu zen azkenean,
oinez. Olio zopak, kikili salda, urrup edan edo klik. Aio, Pelaio. (44)*

Iritzia

Prime-time liburuaren ezaugarri interesgarrienak jaso ondoren, literatur lan ona dela ondorioztatu daiteke. Polizia nobela dugu, estilo bizi eta zuzenez idazten diren horietakoa. Labarretan behera erori den telebistagizon bat topatuko dugu lehen orrialdeetan, eta krimenaren inguruko ikerketak osatzen du kontakizuna. Klemente eta Bala ditugu ikertzaileak, Ertzaintzatik egotziak izan ziren bi detektibe frakasatu.

Gaia guztiz era interesgarrian landu du idazleak, nahiz eta gertaera asko eta pilaturik izan. Tramak hasieratik iradokitzen du hari ilun bat, hilketak tarteko. Tankera honetako abiapuntuak dituzten istorioek argi-itzaletz beteriko amarauna zabaltzen dute irakurlearen inguruan. Kasu honetan, pertsonaia nagusiak dituen harremanek ere indar handia hartzen dute, eta horren ondorioz, tramak indarra galtzen du.

Irakurlea liburua eskuetan hartu bezain laster istorioan murgiltzeko arrazoia, ordea, sentimenduak azaltzeko duen abilezia dela esango genuke. Horretarako, eguneroko bizitzako hainbat gertaera lantzen ditu. Izan ere, eleberri honetako pertsonaiak “guztiz errealak” direla esan daiteke, hau da, ohiko arazoak dituzten pertsona arruntak direla, egunero kalean gurutzatu ditzakegunak. Azken finean, gutako edonori bizitzan gerta dakizkigukeen arazoak dituzte. Gainera, Bilbon eta inguruetan dago kokatuta eta protagonistak edozein kale kantoitan topa daitezkeenak dira. Horrek irakurleari hurbiltasuna igortzen dio, honela, irakurle oro identifika daitekeelarik egoera horiekin.

Egunerokotasunean erabiltzen ditugun zenbait esamoldeak agertzeak ere gertutasuna eskaintzen dio irakurleari. Nobela hau, oso aberatsa da baliabide estilistikoei erreparatuz gero eta, figura hauek, irakurleari

sentimenduak igortzeko erabiliko dira gehienbat. Gainera, gustura eta jakin-minez irensten den liburua da.

Bestalde, liburu benetan erakargarria da. Batetik, estiloa: freskoa, arina eta eraginkorra da. Jendeari irakurtzea errazteko eta jendearengana gerturatzeko helburuarekin dago idatzita liburua. Bestetik, trama indartsua du. Nobela beltz bateko tramak harrapatu egin behar du irakurlea, bestela ez du zentzurik. Esan liteke *Prime-time*-n badagoela trama bat azkeneko orrira arte harrapatzen gaituena, eta azken orrian bada azken zaplazteko bat.

Gainera, liburu honek irakurlea gogoetara bultzatzeko gaitasuna du. Irakurleari, eleberria irakurtzen dagoen heinean, hiltzailea nor izan ote daitekeen pentsatu edo hausnartzeko aukera ematen dio.

Hala ere, baditu bere akatsak. Batzuetan kontaketa astiroegi doa debaldeko deskribapenetan eta xehetasunetan galduta. Horrez gainera, zenbait gauza hainbatetan errepikatzen dituzenez, motela suerta daiteke batzuetan, agian korapiloa argitzeko gogoagatik.

Laburbilduz eta esandakoa kontuan hartuta, hainbat sentsazio sorrarazten dituen nobela aparta dugu honakoa, irakurtzea benetan merezi duten horietakoa. Intrigaz eta ezustekoz betetako eleberria da, gorabehera handiz josia eta bereziki irakurleentzat gozagarria. Nobela beltzak gustatu eta akzioz betetako istorio bat irakurri nahi izanez gero hauxe da aukeratu dezakegun eleberri aproposena.

Bibliografia - Webgrafia

Prime-time, John Andueza. Elkar.

Elhuyar Hiztegia, Askoren artean. Elhuyar.

- <http://www.idazleak.eus/euskara/idazleak/john-andueza-altuna>
- <http://www.atalak.eus/ikaskela/nola-egin/il-gida/index.html>
- <http://goiena.eus/arrasate/1417101315029>
- <http://www.casadellibro.com/libro-prime-time/9788490273036/2435298>
- <http://www.diariovasco.com/culturas/libros/201411/24/john-anduezaren-lehen-nobela-20141124132523.html>
- <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2014/11/25/ocio-y-cultura/nobelaren-trama-potentea-iruditzen-zait>
- <http://www.hamaika.eus/tb/bideo/10003071>
- <http://www.111akademia.com/albisteak/item/1393-bilbon-girotu-du-john-anduezak-prime-time-bere-lehen-nobela-beltza.html>
- <http://www.armiarma.eus/emailuok/?p=6479>
- http://www.elkarargitaletxea.eus/liburuak/default.cfm?atala=prentsa_bulegoa_erakutsi&hizkuntza=1&id_producto
- http://www.elkarargitaletxea.eus/liburuak/default.cfm?hizkuntza=1&atala=artikulu_ikusi&id_producto=G81.127029